

OÑATIKO EUSKAL HIZKUNTZA  
KOMUNITATEAREN EZAUGARRIAK  
TXEPETXEN TEORIAREN ARABERA

HIZNET: Sakontze Egitasmoa

Iñaki Akizu Agirre

# AURKIBIDEA

## 1.- SARRERA

- 1.1. Soziolinguistika eta hizkuntza komunitatea: oinarritzko bi kontzeptu.
- 1.2. Lanaren ezaugarri orokorrak.

## 2.- OINARRI TEORIKOA:TXEPETX.

- 2.1. Txepetxen eredu teorikoa
  - 2.1.1. Ikasketen teoria/teoria de los aprendizajes.
    - 2.1.1.1. Hiztun tipologia/Tipos lingüísticos.
    - 2.1.1.2. Hizkuntzen egoera/ las situaciones de lengua.
    - 2.1.1.3. Talde soziolinguistikoak/ Los grupos sociolingüísticos.
  - 2.1.2. Esparruen teoria/ Teoria de los espacios.
  - 2.1.3. Oinarritzko ideia: hizkuntzaren garapen osoa.

## 3.- EUSKARAREN DEMOGRAFIA OÑATIN. AZTERKETA KUANTITATIBOA.

- 3.1. Euskararen egoeraren radiografia Oñatin. Datu kuantitatiboak.

## 4.- OÑATIKO EUSKAL HIZKUNTZA KOMUNITATEAREN EZAUGARRIAK.

- 4.1. Motibazioa/ezagutza/erabilera.
- 4.2. Oñatiko euskal hiztunen tipologia.
- 4.3. Euskal hizkuntza komunitatearen egitura.
- 4.4. Euskara Oñatin.

## 5.- EUSKARAK OÑATIKO GIZARTEAN BETETZEN DITUEN FUNTZIOAK.

## 6.- ONDORIOAK.

## 7.- BIBLIOGRAFÍA.

## 1.- SARRERA

Sarrerak bi zati ditu. Lehen zatian sakontze egitasmoan hasiera hasieratik erabiliko diren oinarritzko bi kontzeptu aurkezten dira: Soziolinguistika eta hizkuntza komunitatea. Ondoren 1.2. atalean lanaren ezaugarri orokorrak azaltzen dira.

### 1.1. Soziolinguistika eta hizkuntza komunitatea: oinarritzko bi kontzeptu.

Sakontze egitasmo hau soziolinguistikaren barruti zientifikoan kokatzen da alde batetik eta bestetik, euskararen egoeraren oinarritzko unitatetzat euskal hizkuntza komunitatea hartzen du. Soziolinguistika eta hizkuntza komunitatea eztabaida sortu duten terminoak direnez, modu laburrean bada ere nik zein esanahirekin erabiliko ditudan zehaztuko dut lehendabizi, gaizki ulerturik egon ez dadin.

## Soziolinguistika

Hizkuntzaren eta gizartearen arteko harremanak aztertzen dituen hizkuntzalaritzaren adar edo azpidiziplina da soziolinguistikaren esanahia lan honetan. Beraz sakontze egitasmo hau soziolinguistikaren kezka eta arauen barruan kokatzen da bete betean.

## Hizkuntza komunitatea

Hizkuntza berean hitz egiten duten lagunen multzoa da hizkuntza komunitatea lan honetan. Beraz, Oñatin bi hizkuntza komunitate aurkitzen ditugu: euskal eta erdal hizkuntza komunitateak.

Bi ezaugarri ditu Max Weberrentzat hizkuntza komunitateak: giza talde batek hizkuntza bera edukitzea eta talde horrek komunitatea osatzearen sentimendua izatea.

Hizkuntzatik abiatutako talde kontzientzia oso argi egon da Oñatin ere euskaldunak/erdaldunak bereizketaren bidez. Beraz, hizkuntza komunitate kontzeptua guztiz egokia suertatzen da, euskararen egoera soziala aztertzeko.

Aldi berean ulertuko da hizkuntza komunitatea berezko izaera soziala duen entitate dela, berezko gizarte instituzioa, naturala eta lehenengoa, estatu eta bestelakoen aurretikoa.

## 1.2. Lanaren ezaugarri orokorrak.

Sakontze egitasmo honen helburua gaur egun herri zehatz bateko (Oñati) euskal hizkuntza komunitateak dituen ezaugarriak eta bizi duen egoera argitzea da.

Euskal Hizkuntza komunitatearen trinkotzea zertan den aztertuko da.

Aukeratutako herria Oñati da. 10.000 biztanle eta %80ko euskaldun portzentaia duen Gipuzkoako herria, Arabarekin mugan. Hautatutako garaia XX.mende bukaera eta XXI.aren hasiera, etorkizunerako abiapuntu dena.

Oñatiko euskal hizkuntza komunitatearen ezaugarriak eta egoera aztertzerako orduan Jose Maria Sánchez Carrion “Txepetx”en lana izango da lan honi oinarri teorikoa emango diona.

Lan honetan egingo dena zera da azken finean: Txepetxen teoriatik Oñatiko euskal hizkuntza komunitatearen ezaugarriak definitzeko baliagarri zaizkidan kontzeptu, ideia eta teoriak jaso , Oñatiko datuak honen argitara aztertu eta interpretatzen saiatzea.

Hizkuntza baten egoeraren subjektuak hiztunak dira, euskararen egoera aztertzea euskal hizkuntza komunitatearen egoera aztertzea esan nahi du, beraz esan bezala azterketaren subjektua Oñatiko euskal hizkuntza komunitatea izango da.Hizkuntza komunitatearen terminotan egindako azterketa izango da horrenbestez, euskararen egoeraren muina honek emango digulako. Euskararen biziraupen historikoaren erantzulea berau delako. Euskal hizkuntza komunitatea eta bere egitura aztertuko dira besteak beste.

Ikerketaren oinarrizko unitatea Oñatiko euskal hizkuntza komunitatea da beraz. Berari dagokio euskararen egoeraren subjektu edo aktorearen rola. Hizkuntza komunitatea gizarte errealitate bat da, bere izaera duen gizarte egitura, kohesioa sentimendu edo balore jakin batzuetan aurkitzen du, bere ekintza soziala garatzen du eta bere ugalketa mekanismoak ditu.

Metodologia aldetik planteamendua argi eta sinplea da. Txepetxen teorian oinarrিতa Oñatiri buruz jasota dauden datuak bildu, aztertu eta teoria honen argitara interpretatzen saiatuko naiz.

## 2.- OINARRI TEORIKOA: TXEPETX

### 2.1. Txepetxen eredu teorikoa.

**Jose Maria Sánchez Carrión “Txepetx” pertsona klabea da soziolinguistika modernoa ulertzerantz iristeko. Printzipio unibertsal batean oinarrituta (“berdintasunaren printzipioa”) teoria oso bat garatzea lortu du. Teoria honek abiapuntu bat du: gizakiak hizkuntzak nola ikasten dituen azaltzen du eta munduko hiztun, hizkuntza komunitate eta hizkuntzen artean gertatzen diren harremanak ulertu eta interpretatzera iristeko beharrezko klabe guztiak esku artean jartzen dizkigu.**

**Nire helburua teoria hau oinarri hartuta, honen aplikazioa Oñatiko herrian gauzatzea da.**

**Horretarako, puntu honetan eta lehen urrats bezala Txepetxen teoriaren ideia nagusien azalpen laburra egitea da nire helburua, modu nahiko eskematikoan, ondoren teoria hau Oñatiko herrian aplikatzean jarraituko dudako ideien ildo jarraitzeko aukera izan dezan irakurleak. Baina argi aipatu behar da asmoa ez dela teoria bere zehaztasun eta konplexutasunean azaltzea, lan honek denbora eta dedikazio aldetik dituen mugek ezinezkoa egiten dutelako eta Txepetxen teoriaren berri zehatza nahi duenak hor dituelako bere lanak, bertara zuzenean jotzeko. Beraz, ondoko orrialdeetan sakontze egitasmoan garatuko ditudan ideia teorikoen azalpen laburra izango du irakurleak, Txepetxek berak idatzitako hitzek hartuko dutelarik erabateko protagonismoa.**

#### 2.1.1. ikasketen teoria / la teoría de los aprendizajes.

Teoria hau unibertsala da, hau da, Teoria honen bitartez munduko edozein pertsonak munduko edozein hizkuntza ikastea ematen dituen urratsak eta hizkuntzen ikasketa prozesuan faktore eragileak zein diren definitzen du Txepetxek.

- a) Oinarrizko hiru faktoreak / los tres factores básicos.

“Un idioma se aprende por tres factores básicos que son *la motivación* (motibapena), *la percepción* (ezagutza) y *el ejercicio o uso* (erabilpena).


Entendemos por motivación las razones, deseos o intereses que mueven a aprender una lengua o a permanecer en ella. Entendemos por percepción la capacidad y el proceso de captar su funcionamiento. Y entendemos por ejercicio la operación efectiva de usarlo en cualquiera de las funciones lingüísticas que la comunidad posee en un momento histórico concreto... Cada uno de estos factores puede ser espontáneo (natural) o reflexivo (inducido)”

( Txepetx Un futuro... 35)

Motibazioa

Ezagutza

Erabilera



Lehen urratsa: hizkuntzen ikasketa prozesuan parte hartzen duten faktoreen definizioa. Motibazioa, ezagutza eta erabilera, aldi berean hauetariko bakoitza naturala edo hausnartutatutakoa izan daiteke.

b) bi ikasketa motak / los dos aprendizajes lingüísticos.

“Los aprendizajes son de dos tipos: *un aprendizaje primario o natural*, que es el que opera inicialmente en el infante o en el niño. Y *un aprendizaje secundario o cultural* que es el que opera inicialmente en el adolescente o adulto.

Los dos aprendizajes hacen intervenir los mismos tres factores básicos, pero de distinta forma, es decir, en distinta dirección. Un aprendizaje primario o natural es un aprendizaje que va del uso a la motivación. Un aprendizaje secundario es un aprendizaje que va de la motivación al uso.”

(Txepetx La teoria social... 679)

Ikasketa prozesua *naturala* edo *kulturala* izan daiteke. Ikasketa naturala haurrengan ematen da eta ikasketa kulturala gazte/helduengan. Bi hauetan aurretik aipatutako hiru faktoreek hartzen dute parte (motibazioa, ezagutza, erabilera).

c) Bi ikasketa prozesuak kontrako norabidean / los dos aprendizajes como procesos inversos.

“Utilizamos la notación **A** para designar al *aprendizaje primario*, y la notación **B** para designar al *aprendizaje secundario*. Cada uno de estos aprendizajes es un recorrido integrado por tres compartimentos o vasos que corresponden a los tres factores mencionados: motivación, percepción y uso. Los vasos son los mismos en el recorrido A y en el recorrido de aprendizaje B. Pero según se trate de uno u otro los vasos se llenan de modo diferente. Es decir, el niño comienza a hablar cuando empieza a usar el idioma. En el adulto, en cambio, el proceso se inicia en sentido inverso”.

(Txepetx un futuro... 37-38)

d) Nahikotasun maila / el nivel de suficiencia.

“En cualquiera de los aprendizajes para que se produzca el paso de un compartimento a otro (de la motivación a la percepción, de la percepción al uso, del uso a la percepción, de la percepción a la motivación) es necesario que el compartimento previo alcance cierto nivel. A este nivel necesario para permitir el avance de aprendizaje lo llamamos *nivel de suficiencia*.

¿Qué implica esto? Implica que si un niño no alcanza un determinado nivel de uso efectivo del idioma correspondiente no llega a tener un nivel suficiente de corrección fonética, léxica, y gramatical del mismo, es decir, de percepción del sistema. Y, correlativamente, si no puede conseguir cierto nivel de corrección lingüística equiparable al del hablante medio de su edad y grado de instrucción es difícil que se llene hasta el nivel de suficiencia su compartimento motivacional. En otras palabras, no llega a tener una motivación suficiente hacia la lengua de acceso- cualquiera que esta sea- con lo que hay en el un “vacío motivacional” que puede ser llenado desde otra lengua iniciando en el un proceso de sustitución”.

(Txepetx la teoría social 679)

e) Ikasketa prozesuen arteko elkarreragina / interrelación de los aprendizajes

“Con ser importantes los tres puntos previos, el hallazgo fundamental que nos permite recomponer una explicación autoconsciente de la experiencia lingüística es precisamente este: la constatación de que *los dos aprendizajes son complementarios*. Es decir, que a partir de cierta edad y cierto punto de motivación el propio idioma se continua aprendiendo secundariamente. Y a partir de cierto nivel de uso el segundo idioma se continua aprendiendo naturalmente.

La suma de estos cuatro aspectos produce las siguientes conclusiones:

C1.- cuatro posibilidades de aprendizaje.

El aprendizaje lingüístico se compone de un recorrido primario (A) que avanza desde el uso a la motivación y un recorrido secundario (B) que avanza desde la motivación al uso.

Cada recorrido representa un aprendizaje lingüístico incompleto: la adquisición natural, en el primer caso; aprendizaje cultural, en el segundo.

La suma de los dos recorridos forma un circuito. El circuito representa un *aprendizaje lingüístico completo*. Un aprendizaje lingüístico se puede completar partiendo del recorrido del recorrido primario (recorrido AB) o partiendo del recorrido secundario (circuito BA) sobre la base de sumar al recorrido inicial el recorrido complementario.

C2.- Un hablante alcanza un desarrollo lingüístico completo en un idioma dado cuando desde el uso espontáneo inicial, consecuencia de su aprendizaje natural, ha llegado a expresar y canalizar en él usos culturales desarrollados a partir de una conciencia lingüística.

También alcanza un desarrollo lingüístico completo cuando, habiendo empezado a aprender el idioma en la adolescencia o edad adulta a partir de una motivación cultural que genera un estudio del idioma, llega a una valoración intrínseca de la lengua aprendida que se desarrolla como consecuencia de su utilización correcta y efectiva en espacios interiores de uso lingüístico. Al primer tipo de hablante lo denominamos nativo culto o culturizado. Al segundo lo llamamos adulto nativizado. *El conjunto de hablantes plenos (hiztun osoak) esta formado por la suma de sus nativos cultos y sus adultos nativizados.*

Los hablantes plenos constituyen el **espacio simbólico** de la lengua. Este representa el núcleo o corazón de una comunidad lingüística de cuyo vigor depende la vitalidad general del idioma en un momento histórico concreto”.

(Txepetx la teoria social.... 682-683)

La teoría de los aprendizajes produce *implicaciones a nivel individual, a nivel social y a nivel de las lenguas.*

A nivel individual permite establecer una topología exacta de los **tipos lingüísticos**. A nivel social permiten entender la naturaleza, estructura y función de la **comunidad lingüística**. A nivel de las lenguas permite entender los **tipos básicos de situaciones** que viven los idiomas. La desarrollaremos brevemente a continuación:

### *2.1.1.1. Hiztun tipologia / los tipos linguisticos*

“Si consideramos A como el aprendizaje natural de un idioma y B el aprendizaje cultural, y tenemos en cuenta que uno de ellos es necesario mientras que el otro es simplemente potestativo y consideramos dos y solamente dos posibles lenguas en concurrencia dentro de un territorio dado, obtenemos doce combinaciones matemáticas cada una de las cuales representa un comportamiento lingüístico diferenciado. Los tipos lingüísticos no son ilimitados. En relación con dos lenguas en concurrencia son doce, entre los cuales caben sin embargo, numerosas transiciones.

Estos doce tipos pueden considerarse desde el punto de vista cuantitativo o cualitativo.

Desde el punto de vista de la cantidad, los tipos se agrupan dentro de estas subdivisiones:

- 1.- Prelingües: no poseen aun ningun recorrido de aprendizaje en lengua alguna.
- 2.- Monolingües: su recorrido o circuito de aprendizaje solo involucra un idioma.
- 3.- semibilingües: Tienen dos recorridos de aprendizaje, pero cada uno de ellos en una lengua distinta, no habiendo por tanto completado el aprendizaje en ninguna de ellas.
- 4.- bilingües: tienen un circuito completo de aprendizaje en un idioma, y un recorrido en el otro.
- 5.- ambilingües: tienen dos circuitos completos de aprendizaje, esto es, un aprendizaje completo de dos lenguas.

Desde el punto de vista cualitativo los tipos lingüísticos requieren otra agrupación que exprese la relación que su situación lingüística guarda con las necesidades de la lengua territorial (L1, que es la lengua que en la formula va siempre a la izquierda).

- 1.- Tipos compensables: desconociendo la lengua territorial o conociéndola incompletamente están en condiciones de adquirirla completamente.
- 2.- Tipos descompensados: son los tipos que tienen fijado un aprendizaje B en la lengua extraterritorial que rompe su aprendizaje cultural en la lengua nativa. O bien los tipos que solo



conocen completamente la lengua extraterritorial tienen un conocimiento incompleto de la lengua nativa.

3.- Tipos duplicados: tienen circuitos de aprendizaje, es decir, un aprendizaje completo en las dos lenguas.

La suma de los aspectos cuantitativo / cualitativo da a la topología que exponemos a continuación que puede, por razones didácticas, simplificarse inicialmente en una topología de ocho tipos básicos”.

(Txepetx la teoria social... 685)

### 2.1.1.2. *Hizkuntzen egoera / las situaciones de lengua.*

“Una lengua puede estar, en un momento histórico preciso en una de estas situaciones existenciales.

0 A B AB

Lenguas en situación A: aquellas lenguas que en relación con las exigencias de su tiempo histórico solo reciben una transmisión natural.

Lenguas en situación B: lenguas que en dicho momento histórico solo se transmiten culturalmente.

Lenguas en situación AB: lenguas que en relación con las exigencias de tal tiempo histórico se transmiten de un modo completo: natural y cultural.

Lenguas en situación 0: son lenguas extintas en el momento histórico de referencia.

Por su naturaleza todas las lenguas tienen la posibilidad intrínseca de ser lenguas AB”.

(Txepetx la teoria social... 687)


### 2.1.1.3. *Talde soziolinguistikoak / Los grupos sociolinguísticos*

“El desarrollo completo individual en un idioma se logra:

- si se es nativo del idioma cultivándose en él.
- Si no se es, nativizándose.

Desde el punto de vista del aprendizaje los grupos sociolingüísticos son cuatro:

- a) Nativos cultivados. AB
- b) Adultos nativizados. BA
- c) Nativos primarios. A
- d) Adultos secundarios. B



Los grupos AB y BA constituyen las capas mas interiores: EL ESPACIO SIMBÓLICO de la lengua. De entre ellos el más nuclear es el grupo AB: si este grupo no vive y se expande en el corazon de la comunidad lingüística puede colapsar el propio idioma.

Una comunidad lingüística esta articulada no solamente cuando se autoreproduce y las ganancias, compensan a las perdidas, sino también cuando, simultáneamente, los grupos están dispuestos tal y como aparecen en el diagrama. En una comunidad articulada los grupos plenos (AB/BA) crecen de dentro hacia fuera, cada grupo ocupa su lugar y lo asume.

Una comunidad lingüística esta articulada cuando los grupos plenos se contraen, están descentrados (forma una periferia que carece de incidencia social dentro del territorio político que lo subordina), y el uso social del idioma resulta ya insuficiente para fijar a los infantes a la lengua patrimonial por un aprendizaje completo.

Lo que articula a una Comunidad Lingüística es su propio compactamiento. Lo que la desarticula es el artificio de lo que hemos llamado estado expansionario”.

(Txepetx la teoria social.... 689)

### **2.1.2.- Esparruen teoria/ La teoria de los espacios**

“La teoría de los espacios nos permite reconocer siete funciones básicas o funciones matrices de un idioma que, de menor a mayor serian: la función de identidad, la función familiar, la función profesional, la función local, la función nacional, la función de civilización y la función internacional. Las funciones representan ellas mismas ámbitos imbricados y escalonados de uso lingüístico que compensan sucesivamente extensión e intención. Así, por ejemplo, desde el punto de vista del hablante individual la función de identidad (=lengua a la que tiene asociados el razonamiento y la experiencia) le concierne sólo a él, pero le concierne del modo más directo posible; Es decir, es una función en la que la extensión es mínima (solo él), pero la intensidad es máxima (todo él). La función de lengua nacional, por ejemplo, y aún desde el punto de vista del hablante concreto, es una función en la que él puede tener escasa intervención o escasa incidencia; o, aunque la tenga, donde el sujeto aislado es, en condiciones normales, fácilmente releable. Pero, en cambio, es una función de una gran extensión: interesa e involucra a todos los hablantes de una comunidad lingüística. Por su parte, desde el punto de vista de la Lengua, las funciones de civilización y nacional son sus funciones de máxima intensidad, pues son ellas las que permiten el desenvolvimiento de las capacidades creativas del idioma en un momento histórico concreto; Pero son funciones de mínima extensión en la relación de la lengua con los hablantes pues cada uno de ellos aporta sólo un poco para materializarlas: es el conjunto de los esfuerzos individuales sumados el que produce la función. En cambio, la función de identidad es, para la Lengua, de mínima intensidad (la perdida o la ganancia de un sujeto concreto representa una perdida para el idioma fácilmente compensable o descompensable), pero es de gran extensión porque la lengua vive de modo completo en el individuo que tiene una identidad lingüística fijada a él por un aprendizaje completo de la misma. Entendiendo de este modo la escala como una cuerda, y entendiendo correctamente la imbricación espacial, resulta fácil comprender que las dos funciones nucleares de un

idioma cualquiera necesita apuntalar para vivir con normalidad son la función nacional (hacia fuera) y la función de identidad (hacia dentro). La primera conecta al idioma con la civilización del tiempo histórico actual. La otra conecta con los individuos permitiendo que estos se interioricen de modo completo. La primera garantiza la transmisión cultural del idioma; la segunda, su transmisión natural. Si una lengua no materializa en su territorio lingüístico la función nacional tiene un déficit de funciones que provoca, en un plazo de tiempo más o menos corto, su desaparición al quedar desarticulada la comunidad lingüística que la materializa. Si una lengua no cumple para sus hablantes la función de identidad carece de sujetos que la vivan y la transmitan naturalmente y ha dejado, por tanto, de ser una lengua “viva”.

De modo que las funciones nacional / identidad son las que enlazadas a traves de un repertorio de funciones escalonadas permiten la continuidad de la lengua de un periodo a otro, a traves de unos hablantes que la viven completamente dentro de una comunidad lingüística articulada”.

(Txepetx la teoria social... 691)

## 3.- EUSKARAREN DEMOGRAFIA OÑATIN. AZTERKETA KUANTITATIBOA.

### 3.1. Euskararen egoeraren radiografia Oñatin. Datu kuantitatiboak.

“Hizkuntza komunitatearen neurria – bere hiztunen kopurua nahiz alboko hizkuntzetakoekiko proportzioa, bere demografia, azken finean- garrantzi handiko faktorea da iraupen eta ordezkapen porzesuen azterketan” (Erize 259)

Xabier Erizeren baieztapen hau hizkuntza komunitateen gaur egungo egoera aztertzean ere biziki garrantzitsua dela uste dut. Horregatik, Oñatiko euskal hizkuntza komunitatearen azterketa egiteko ezaugarri demografikoen erradiografia egingo dut lehendabizi, Oñatiko euskal hizkuntza komunitatearekiko lehen hurbilpen gisa.

#### A) Oñatiko euskal hizkuntza komunitatea bere kontestu geografikoan.

Oñatiko euskal hizkuntza komunitatearen ezaugarriak aztertzeke, eta hizkuntza komunitate hau bere kontestuan kokatzeko, euskal hizkuntza komunitate osoarekiko kontestuan kokatuko dut lehendabizi.

1996ko erroldan jasotako datuak

	Biztanleak	Euskaldunen %
EH		
EAE	2.098.055	% 30,9
Gipuzkoa	663.914	% 49,7
Debagoiena	62.526	% 63,9
Oñati	10.377	% 79,8

Orokorrean esan daiteke Oñatiko eremu geografikotik zenbat eta gehiago urrundu, euskara hitz egiten duten pertsonen ehunekoa ere gutxitu egiten dela. Alderantzizko irakurketa eginez esan dezakegu Oñatiko euskal hizkuntza komunitatea geografikoki euskal hizkuntza komunitatearen erdigunean edo bihotzean kokatuta dagoela, eta proportzionalki duen euskaldun kopurua altua dela esan dezakegu, kontuan izanda 10.000 biztanletik gorako herria dela eta 1996ko Eusko Jaurlaritzako datuek erakutsi bezala herria zenbat eta handiagoa euskaldunen proportzioa orduan eta txikiagoa izan ohi dela.

Behin euskal hizkuntza komunitatearekiko kontestuan kokatuta aztertu dezagun Oñatin euskararen egoera demografikoa zein den:

B) Oñatiko euskararen egoera demografikoa.

\*Biztanleria.

Oñatiko udalerrian 10.564 pertsona zeuden erroldatuta 1996 urtean. Herritarren populazioa gutxitzen doa poliki-poliki azken hamarkadetan, ondoko taulak erakusten duen moduan:

Oñatiko biztanleriaren bilakaera.

	1981	1986	1991	1996
Biztanleak	10.893	10.884	10.695	10.564

\*hizkuntza gaitasuna.

Oñatiarren %80,4 zen euskalduna 1996an. Euskaldunen portzentaia gorantza doa etengabe 1981etik gutxienez (euskararen ezagutza errolda bidez jasotzen hasi zen urtea) erritmo egonkor xamarrean.

Hizkuntza gaitasunaren bilakaera 1981-1996.Oñati

	1981	1986	1991	1996
Euskaldunak	74,3	76,2	78,9	80,4
Elebidun hartza.	6,8	7,9	5,9	5,9
Erdaldunak	19,0	15,9	15,1	13,7

\*Hizkuntza gaitasuna adinaren arabera 1991. Oñati.

	Haurrak	Gazteak	helduak	zaharrak	Guztira
Ezagutza 91	% 88,4	% 84,0	% 71,8	% 86,3	% 78,3

Oharra: ezin izan dut 1996ko daturik lortu

Euskararen ezagutza adinaren arabera aztertzen badugu euskaldunen portzentaiarik altuena hurrek dutela ikusten dugu (%88,4), Oñatiko hamar aurretatik ia 9 euskaldunak ziren 1991n. Zaharrak eta gazteak datoz ondoren kopuru nahiko parekoekin (%86 eta %84 hurrenez hurren) eta kasurik okerreanean ere (helduen taldea) euskaldunen ehunekoa ez da %70a baino baxuagoa.

Demografikoki euskara indartsu dagoela esan dezakegu, beraz: Euskaldunak gehiago dira herrian eta adin tarte gazteena da euskaldun proportzio altuena duena, datu honek euskararen bizitasun demografikoa nabarmena dela eta hizkuntza komunitatean jarraipena ziurtatzeko mekanismoak martxan dirautela eta funtzionatzen dutela adierazten digu.

\*hizkuntza erabilera.

2000 urtean egindako kale neurketan, Oñatiko kaleetan jasotako elkarrizketetatik % 56a euskaraz ziren eta % 43a gaztelera. Lehen ondorioa Oñatiko kaleetan euskara gaztelera baino gehiago entzuten dela da.

Erabilera datuak Oñatin. Kale neurketetako emaitzak.

	1989	1991	1993	1995	1997	2000
Euskaraz	47,9	56,3	62,1	57,1	57,4	56,7
gaztelera	52,1	43,7	37,9	42,9	42,6	43,3

Urteetako bilakaerari erreparatuta 1989 eta 1993 urte bitartean euskararen erabileraren proportzioa nabarmen handitu dela ikusten dugu euskara kalean gaztelera baino gutxiago entzutek (%47) lau urteko epean %62raino iritsiz 15 puntutako jauzi nabarmena eman zen. Urrengo bi urteetan berriz 5 puntu egin zuen behera 1991ko kopuruetara bueltatuz eta hor estabilizatu dela esan dezakegu azken urteetan. 2000 urtean 1991ko proportzio berean hitzegiten da euskaraz kalean.

\*Erabilera adin taldeka

urteak	1989	1991	1993	1995	1997	2000
Haurrak	66,9	79,5	79,9	78,3	75,4	85,9
Gazteak	36,5	49,3	75,4	64,5	75,9	75,6
Helduak	36,1	42,4	43,8	40,1	36,1	36,5
zaharrak	63,0	69,7	68,0	65,2	57,9	52,0

Adin tartearen arabera erabilerari erreparatzen badiogu, hemen hainbat prozesu ematen direla ikusten dugu:

Haurren artean 89-91 urte artean 12,6 puntuko salto nabarmena. 91-97 urte artean beheranzko estabilizazioa eta 1997/2000 urte artean 10,5 puntuko salto kualitatiboa.

Gazteen artean etengabeko gorakada gertatu da 89/93 urte artean 38,9 puntuko jauziarekin. Ordutik %75 inguruko erabileran estabilizatu da. Erabileran jauzi positibo nabarmenena ezagutu duen taldea, 89an helduen abiapuntu bera izanik % 36 orain beste talde hau baino 39,1 puntu gehiago erabiltzen du.

Helduen adin tarteko elkarrizketen %36a zen euskaraz 1989an eta berdin jarraitzen du 2000an. Erabilera %50etik behera ematen den adin talde bakarra da.

Zaharren multzoan hasieran goranzko joera ezagutu arren etengabeko beheranzko joera darama 1991tik. Bizitzaren araua; pertsona zaharrenak hil (euskaldunenak) eta helduen taldeak (erdaldunena) etengabe pertsonak sartzen direlako hedadetuen adin taldean.

\*Ezagutza eta erabilera adin tarteka

	Haurrak	gazteak	helduak	zaharrak	Guztira
Erabilera 00	85,9	75,6	36,5	52,0	56,7
Ezagutza 91	88,4	84,0	71,8	86,3	78,3

Hainbat joera ikusten dira: Haurren ezagutza maila %88koa da eta erabilera %85ekoa. Ezagutza eta erabileraren arteko tartea oso txikia da. Honek esan nahi du euskaraz dakiten Oñatiko haurren ia %100ak erabiltzen duela euskara kalean. Bi arrazoi nagusi daude honetarako: ezagutza maila altua eta Oñatiko haurrak bici diren kontestu soziolinguistikoan Txepetxen hiru ontziak nahikotasun maila nabarmen gainditzen dutela, hau da, erabilera nahikoa jasotzen dute hizkuntza gaitasun egokia lortuz. Hizkuntza gaitasun egokiak eta erabilera esparruen jabe izateak hizkuntzarekiko motibazio naturala ziurtatzen du.

Gazteen artean ere antzerako zerbait gertatzen da. Ezagutza eta erabileraren arteko zuloa nabarmenagoa den arren (8 puntukoa) erabilera, gaitasuna eta motibazioaren ontziek nahikotasun maila kasu gehienetan gainditzen duela ikusten dugu. Hizkuntzaren erabilera esparruak ere gero eta gehiago dituztelarik. Horrez ain euskaraz hitzun osoak dira oñatiko gazte gehienak AB edo BA.

Helduen kasuan jauzia oso nabarmena da. Arreko taldeetan 3 eta 8 puntuko alde badago ezagutza eta erabileraren artean helduen kasuan jauzia 35 puntukoa da. Arrazoi argia da. Helduen taldeak euskara modu osotuan jasotzea ezinezko izan duen adin taldea da, euskara modu naturalean jaso dute gehienek (gutxi batzu modu kulturalen jaso badute ere) A ibilbidea osatuz baina ikasketa guztiak gazteleraz gauzatu dituzte B ibilbidea gazteleraz egin dutelarik. Hitzun hauek kasu askotan hitzun oso dira gazteleraz BA eta osatu gabeak euskaraz A. Erabileran islatzen da guzti hau.

Zaharren kasuan ere ezagutza eta erabilera arteko tartea zabala da, 34 puntutakoa. Ondorio bezala esan dezakegu adin tarterik gazteenak direla gaitasun eta erabilera arteko tarterik txikiena duten adin taldeak: arrazoiak euskaldun euskaldun proportzio altua dute, euskaraz hitzun osoak dira gehienak eta gero eta erabilera esparru gehiago dute euskaraz aritzeko.

Heldu eta zaharren artean euskaldun proportzioa ere altua da baina hitzunak ez dira hitzun osoak euskaraz, bide kulturala gazteleraz egiteak hizkuntza ohituretan eta hizkuntza prestigioan eragina izan du.

\*ama hizkuntza 1986-1996.

	1986	1991	1996
Euskara	81,4	78,0	76,6
Euskara eta gaztelania	3,7	5,8	6,4
gaztelania	11,7	14,8	15,3

1996 urtean euskara (bera bakarrik) zen Oñatiarren %76,6aren ama hizkuntza, euskara gaztelerekin batera %6,4aren kasuan eta gaztelera bakarrik %15,3 kasutan. Urteak pasa ahala euskara (bakarrik) ama hizkuntza duten Oñatiarren proportzioa jaisten doala ikusten dugu 4,8 puntu 10 urtetan. Euskara eta gaztelania, eta gaztelania bakarrik gero eta haur gehiagoren lehen hizkuntza dira. Honen arrazoia guraso mixtoak (euskaldun/erdaldun) edo erdaldunak dituzten gero eta haur gehiago direla euskaldun. Edozein kasutan euskararen transmisioa (bakarrik edo gaztelerekin batera) beti %80tik gora mantentzen da. A ibilbidea, transmisio naturalarena ziurtatuz eta indartsu jarraitzen duenaren adierazle.

\*hizkuntz bilakaeraren tipologia.

Euskaldun zaharrak tipologia erabat nagusia dira (%67,9) Oñatiko herritarren artean. Bigarren taldea kopuruari dagokionez erdaldun zaharrena da %13 arekin. Euskaldun berriek hirugarren taldea osatzen dute %8,8arekin, atzetik partzialki euskaldun berriak datoz %5arekin. Jatorrizko elebidunek %3,6a osatzen dute. Partzialki eta guztiz erdaldunduen artean Oñatiko herritarren %1,1 osatzen dute.

Hizkuntz bilakaeraren tipologia 1996

	Euskaldun zaharrak	Jatorrizko elebidunak	Euskaldun berriak	p. euskal berriak	p. erdaldunduak	Guztiz erdaldund	Erdaldun zahar
1991	69,2	3,0	6,7	4,4	1,5	0,3	14,8
1996	67,9	3,6	8,8	5,0	0,9	0,2	13,6

Euskaldun zaharren multzoa murriztuz doa, baita erdaldun zahar eta partzialki eta guztiz erdaldunena. Irabaziak aldiz euskaldun berri, partzialki euskaldun berri eta jatorrizko elebidunengan ematen da.

Euskal hiztunen irabazia talde hauei esker ematen da.

Oñatiko euskaldunak gehiago dira %78tik %80ra pasatuz 1991tik 96ra baina barne banaketan euskaldun zaharrak gutxituz doaz (euskaraz aktiboak direnak, eta euskaraz erraztasun gehien dutenak) eta jatorrizko elebidunen eta euskaldun berrien ehunekoa handitzen da (hizkuntza gaitasun orekatua edo erdaraz errazago moldatzen den multzoa). Partzialki euskaldunduen ehunekoa gorantza doa eta partzialki eta guztiz erdaldunduena beherantz, euskara hiztunak erakartzen ari denaren seinale, galtzen ibili beharrean. 3,9 puntuko irabazia dago euskararentzat alor honetan. Euskaldunen ehunekoen artean ere irabaziak ematen direla ikusita euskara hiztunak irabazten ari dela ondorioztatu dezakegu.




## 4.-OÑATIKO EUSKAL HIZKUNTZA KOMUNITATEAREN EZAUGARRIAK


### 4.1. Motibazioa / ezagutza / erabilera.

Edozein hizkuntzaren ikasketa prozesuan eragiten duten hiru faktoreak MOTIBAZIOA-EZAGUTZA-ERABILERA direla ikusi dugu. Oñatiko euskal hizkuntza komunitatearen ezaugarriekiko lehen hurbilketa moduan Oñatiko herrian 3 faktore hauek bizi duten egoera aztertuko dugu.

Lehen koadro honetan 1996ko inkestako Oñatiko ezagutza datuak biltzen dira. Erabilera datuak 1996ko kale neurketari dagozkionak dira. Azkenik ez dut motibazio edo jarreraren daturik jasotzerik izan.




1996an euskararen ezagutza %80,4an dago Oñatin eta erabilera %56an . Egoera minorizatua bizi duten hizkuntzen kasuetan normala den bezala ezagutzatik erabilerarako jauzian oztopoak aurkitzen ditu euskal hiztunak. 1996 urtean ezagutzatik erabilerarako tartea 14 puntutakoa zelarik. Maila honetan egoera hobera edo okerrera doan aztertzekeo 1986ko ezagutza eta 1989ko erabilera datuekin erkatuko dugu informazio hau.





1996 urteko ezagutza eta erabilera datuak hamar urte lehenagokoekin erkatuta ikusten dugu bai ezagutzaren eta bai erabileraren ontziak beteago daudela, ezagutza 4 puntu beteago eta erabilera 8 puntu beteago. Aldi berean ezagutza eta erabileraren arteko tartea txikitu dela ere ikusten da 28 puntuko tartetik 24ra pasatuz.

Herriaren hasierako lehen ikuspegi orokor honi Oñatiko gazteen artean (13-17 urte artekoak) 2000 urtean egindako ikerketa lan batek ematen dituen emaitzak gehituko dizkiogu:




Kasu honetan ikusten dugu bai ezagutzaren eta bai erabileraren ontziak beteago daudela Oñatiko gazteen kasuan Oñatiarrak bere osotasunean hartuta baino. Ezagutza %84ra igotzen da eta erabilera %75era. Kasu honetan ezagutza eta erabileraren arteko jautzia berriz ere murriztu egin dela ikusten dugu, herri osoa kontuan hartuta 14 puntuko jautzia egotetik gazteen artean jauzi hori 9 puntura murriztu da. Beraz gazteen artean ezagutzatik erabilerarako jauzi horretan zailtasun gutxiago aurkitzen dituztela ikusten dugu, ontzi batetik bestera pasatzeko dauden oztopoak gainditzen doazenaren seinale.

Ondorio bezala esan dezakegu motibazio, ezagutza eta erabilera mailetan gaur egungo datuak etorkizunerako oinarri sendoa osatzen dutela, ezagutza mailan euskaldunak %80 izatera heldu dira, herriaren gehiengoa, hamar urte lehenago baino 4 puntu gehiago, eta prozesu honek etenik ez duela izango dirudi gazteen adinetik aurrera zenbat eta gazteago orduan eta euskaldun proportzioa altuagoa delako, beraz ezagutzaren ontzia betetzen jarraituko dela dirudi. Erabilera datuak ere oinarri sendo bat erakusten dute. 1996an euskara gehiago entzuten zen kalean gaztelera baino, 10 urte lehenago gertatzen ez zena, gazteek ere gehiago erabiltzen dute euskara herria bere osotasunean hartuta baino eta aldi berean ezagutza eta erabileraren arteko jautzia edo tartea murriztuz doa. Beraz aurrakusi dezakegu erabileraren ontzia ere betetzen jarraituko dela eta aldi berean ezagutza eta erabileraren arteko desoreka murriztuz joango dela, hau da, ero eta oztopo gutxiago izango dituela euskara ezagututa euskaraz bici nahi duenak.

## 4.2. Oñatiko euskal hiztunen tipologia

Txepetxen teoriak hiru mailatan eragiten duela ikusi dugu. Hiztun mailan, hizkuntza komunitatearen mailan eta hizkuntzaren mailan.



Aztertuko dudan lehen eremua hiztunarena izango da.

Txepetxen teorian hiztunak tipo hauetakoak izan daitezkeela ikusi dugu, euskarari dagokionez:

AB hiztunak: ibilbide naturalaren ondotik, A ibilbidea alegia, ibilbide kulturala ere euskaraz egin dutenak, B ibilbidea.

BA hiztunak: euskara gaztaro/helduaroan ikasita, B, euskara barneratu eta ibilbide naturala ere gauzatzea lortu dutenak, A.

A hiztunak: ibilbide naturala euskaraz egin dutenak. Ibilbide kulturala edo ez dute bete edo gazteleraz bete dute.

B hiztunak: euskara helduaroan ikasita, ez dira hizkuntza barneratzera iritsi.

0 hiztunak: euskararik ez dakitenak.

AB eta BA hiztun taldeek, hizkuntzak dituen hiztun osoek alegia, hizkuntzaren gune sinbolikoa osatzen dutela ere ikusi dugu.

Orain Oñatiko herritarrei buruz jasotako datuak sailkapen honetara moldatuta ondoko kopuruak ematen dizkigu.

Hiztun mota	kopurua	%
AB eta BA	5599	53,9
A	2686	25,8
B	956	9,2
0	1136	10,9

Oharra: taulako datuak eustaten web orrian jasotakoak dira.

Bertan jasotzen den informazioa Txepetxen eredura egokitzeko ondoko parekatzeak egin ditut:

AB/BA: euskaldun alfabetatuak.

A: euskaldun alfabetatu gabeak / zati batean alfabetatuak.

B: ia euskaldunak.

0: erdaldunak.

Gune sinbolikoa osatzen duten taldeak AB eta BA informazio honen arabera bereizterik ez nuenez, talde bakarra bezala tratatzea erabaki dut nahiz eta jakin berez bi talde berezitu osatzen dituztela.

Talde teoriko hauek beti ere hurbilketa gisa ulertu behar dira. Hauen barruan trantsiziozko hainbat talde daude beti. Baina ditugun datuekin ezin gara zehaztasun maila horretara iritsi.

Ateratzen diren datuak aztertuta kuantitatiboki AB eta BA taldeek osatzen dute oñatiko hiztun talde nagusia bi Oñatiarretatik bat talde honetan barneratzen delarik, gogoratu behar dugu talde hau dela hizkuntzarentzat garrantzitsuena, gune sinbolikoa, eta hizkuntzaren bizi iraupenerako giltzarria. Talde honetan Oñatiarren erdia baino gehiago egotea garrantzitsua da Oñatiko euskararen bizi iraupenerako. Datu honi gehitzen badiogu kopuru aldetik bigarren talde nagusia A taldea dela, alfabetatu gabeko euskaldunak %25,8arekin, honi ere datu positiboa dela irizten diot. Ondoren 0 taldea dator, erdaldunena %10arekin eta azkenik B taldea, euskara modu kulturalen ikasi baina barneratzera eta modu naturalean erabiltzera iritsi ez dena.

Datu hauei 1986ko datuak gehituko dizkiogu, hiztun taldeen eboluzioa nolakoa izan den aztertzeko.

	1986		1996	
	kopurua	%	Kopurua	%
AB/BA	4101	38,6	5599	53,9
A	3989	37,5	2686	25,8
B	1256	11,8	957	9,2
0	1277	12,0	1136	10,9
Osoara	10623	100	10377	100

1996ko datuak 1986koekin gonbaratuta bi aldaketa nagusi somatzen dira:

- 1) 1986an hiztun osoen taldea (AB/BA taldeak) eta A taldea ziren nagusi. Bi taldeen artean puntu bakarreko aldea zegoen. 1996an aldiz alde hori 28 puntutakoa da, 10 urteren buruan euskal hiztun osoen taldea nabarmen indartu da (15,3 puntu) eta A taldea ahuldu (11 puntu). Honen arrazoia bi prozesutan aurkitzen dugu: Alde batetik 10 urte hauetan hildako pertsona gehienak herriko aitona amonak izan dira, hauek A taldea osatzen zuten nagusiki, euskara etxean jaso eta gazteleraz eskolatu direnak eskolatu diren kasuetan. Bestetik, herrian sortzen diren haur berriak sozializazio prozesuan AB/BA taldean sartzen dira nagusiki, hiztun osoen taldea sendotuz.
- 2) Euskal hizkuntza komunitatearentzat periferikoenak diren talde soziolinguistikoek etengabe egiten dute beheruntz kopuru aldetik, erritmo

pausatuan izanda ere. B taldeak 2,6 puntu galdu ditu eta 0 taldeak 1,1 hamar urtetan, euskal hizkuntza komunitatearen gune sinbolikoa indartua atera da honenbestez.


AB/BA gero eta talde sendoagoa bihurtzen ari da, gainontzeko taldeen kaltetan, AB/BA da hiztunak irabazi dituen talde bakarra. Beraz euskaraentzat osoak diren hiztunen irabazi etengabea gertatu da hamar urte horietan, euskararentzat hiztun osoak diren taldea Oñatiko herritarren erdia baino gehiago izatera iristeraino.

### **4.3.Euskal hizkuntza komunitatearen egitura. Oñati.**

Txepetxen teorian talde soziolinguistikoak gune baten inguruan antolatzen dira. AB taldea da hizkuntza komunitatearen gunea eta BA taldearekin hizkuntza komunitatearen gune sinbolikoa osatzen du, euskaraz hiztun osoak diren herritarren multzoa da hau eta hizkuntza komunitatearentzat hizkuntza gaitasun eta hizkuntza motibazio aldetik ekarpenik handiena egiten duten taldeak dira. Oñatin gune sinboliko hau herritarren %53,9ak osatzen du. Kopuru garrantzitsua da nire ustez eta herritarren erdia baino gehiago talde hauetan barneratuta egoteak ematen dio Oñatiko euskal hizkuntza komunitateari kuantitatiboki nahiz kualitatiboki indar eta garrantzi berezia. Kopuru aldetik nabarmen handiagoa da talde soziolinguistiko hau. Ondoren A taldea dator, Oñatiarren %25,8<sup>a</sup>, proportzionalki bigarren taldea osatzen duena, kopuru garrantzitsuan. Talde hau herriko euskaldun heldu eta zaharrek osatzen dute, etxean eta kalean euskara jaso baina ikasketak gazteleraz burutu zituztenak (helduak) edo kasu askotan eskolara joan ez zirenak (zaharrak). Ondoren datorren taldea B Oñatiko herritarren %9,2ak osatzen du, talderik txikiena da kopuruz. 0 taldea, euskararik ez dakien herritar multzoa talde osoarekiko %10,9 a osatzen du, talderik periferikoena da.

1996

Oñatiko euskal hizkuntza komunitatearen egitura



■ AB/BA gune sinbolikoa  
%53,9

■ B %9,2

■ A %25,8

■ 0 %10,9

Hizkuntza komunitatearen egitura aldetik bereziki aipagarria da hizkuntza komunitatearentzat egiten duten ekarpenegatik garrantzitsuenak diren hiztun taldeak AB/BA kopuru aldetik ere nagusi direla eta herritarren herida baino gehiagok osatzen duela. Honek berebiziko garrantzia du hizkuntza komunitatearentzat, eredugarri eta zentru irradiatzailea den taldea egonkor eta sinergien sortzaile izateko aukerak biderkatzen zaizkiolako.

Honekin batera aipagarria da aldi berean gune sinbolikotik gertuen dagoen taldea izatea aldi berean kopuru aldetik ere urrena da %25eko biztanleekin.

Honela ziurtatua dago Oñatiarren %79,7ak jasotzen duela euskara ama hizkuntza bezala edo ama hizkuntza izan gabe barneratzea lortu dutenak izatea, eta %53,9ak euskara kultur hizkuntza moduan gara dezakeela edo garatzeko gaitasuna duela.


B hizyunek %9,2<sup>a</sup> osatzen dute Oñatiko herrian eta hamar Oñatiarretatik batek ez daki euskaraz.

Ondorio bezala esan dezakegu Oñatiko euskal hizkuntza komunitatea egoki antolatua dagoela, hizkuntzaren gunea diren hiztunak kopuru aldetik ere gehiago dira. Beraz hizkuntza komunitatearentzat gune sinboliko indartsua dugu. Aldi berean gune sinboliko hau ongi babestua dago A motako hiztunen taldeak herritarren %25arekin oso ongi babesten duelako gune sinbolikoa. Azkenik hizkuntza komunitatearentzat periferikoenak diren hiztun taldeak honentzat duten garrantziagatik, kopuru aldetik ere periferikoenak dira, biek elkarturik %20ra iristen dira soilik, A taldea baino gutxiago eta AB/BA taldeen herida izatera ez dira iristen.

Urrengo urratsa hizkuntza komunitatearen egituratze prozesua positiboa ala negatiboa den aztertzea izango da, hau da hizkuntza komunitateak egitura gero eta sendoagoa azaltzen duen edo gero eta ahulagoa. Horretarako 1996an Oñatiko euskal hizkuntza komunitateak azaltzen duen egitura 1986an azaltzen zuenarekin gonbaratuko dugu, hauek erkatu eta ondorioak ateraz, bertan izandako aldaketan berri izateko.

1986

Oñatiko euskal hizkuntza komunitatearen egitura





Hizkuntza komunitatearen egituraren aldetikaldetik ikusten dugu gune sinbolikoa izugarri indartu dela hamar urtetan %38,6 izatetik %53,9 izatera igaro delarik hamar urtetan. Honek esan nahi du hizkuntza komunitatearentzat garrantzitsuenak diren talde soziolinguistikoek hiztunak irabazi dituztela eta hizkuntzak sorkuntza gaitasunean eta motibazioan izugarri irabazi duela. Hau inguratzen gertuen dagoen hiztun taldea, A taldea alegia %37<sup>a</sup> izatetik %25 izatera pasatu da. 12 puntu galdu ditu, hala ere bigarren talde garrantzitsuena izaten segitzen du, oraindik ere gune sinbolikoa babesteko kopuru nahikoa. A taldearen galera bi arrazoik azaltzen digute. Alde batetik talde soziolinguistikoaren optimizazioa gertatu da, hau da hainbat A hiztun bere hizkuntza egoera optimizatu eta AB izatera pasatu dira. Bestetik A talde soziolinguistikoa nagusiki pertsona hedadetuek osatzen dute eta hamar urte horietan gertatutako heriotzek batez ere talde soziolinguistikoko honi eragin diote, haur jaioberrien artean sortzen diren haurrek berriz ez dute talde honetan reagiten gehienak AB/BA gune sinbolikoa osatzera pastasen direlako. B taldeak ere galerak ezagutu ditu, bi puntu pasatxo, hemen ere talde soziolinguistikoaren optimizazio prozesua antzeman daitekeelarik, hemeki bada ere hainbat B hiztun beraien egoera optimizatu eta BA hiztunak izatera pasatu dira, euskara barneratzea lortu dutenak, hizkuntza komunitatearen gune sinbolikoa indartu eta aberastuz. Azkenik 0 taldeak ere hiztunak galdu ditu, euskararik ez dakitenak gero eta gutxiago dira Oñatin, prozesu geldo baina etengabe, arrazoia euskararik ez dakiten pertsona hedadetuen heriotza eta gertuen duten talde soziolinguistikora emandako urratsa euskalduntzeko hartutako erabakiaren bitartez B taldera pasatuz.

Ondorio bezala esan dezakegu bi norabide garbi erakusten dituela konparaketa honek: Batetik hizkuntza komunitatearen gune sinbolikoa modu nabarmen batean indartu da, Oñatiarren 38,6ek osatetik %53,9ak osatzera pasatu delarik, talde soziolinguistikoa nagusia da nabarmen, bi arrazoi nagusigatik:

- a) talde soziolinguistikoaren optimizazioa: gune sinbolikotik gertuen dauden talde soziolinguistikoaren optimizazioaren ondorioz A eta B taldeetatik AB eta BA taldeetara pasatu dira Oñatiar mordoxka bat, hizkuntza komunitatearen gune sinbolikoa indartuz.
- b) Haur jaioberrien ezaugarriak: Oñatin euskararen transmisio naturala bizi bizi dago eta transmisio naturala ezinezko gertatzen den kasuetan irakaskuntza sistemaren bitartez ikasten dute euskara haur erdaldunek, transmisio naturala bici bici egoteaz gain D ereduak ia erabat nagusitzen dena.

Bitarteko hauen bidez haur jaio berrien gehiengoa AB hiztun taldean sartzen delarik sozializazio prozesuan edo BA taldean transmisio naturala jasotzerik izan ez duten haurren kasuan. Generazio berriek hizkuntzaren gune sinbolikoa indartzen dute modu nabarmen batean.

Talde soziolinguistikoen optimizazioa gertatzen ari da. A B eta 0 taldeak txikituz doaz, talde hauetako hiztunak beraien egoera optimizatuz gertuen duten talde soziolinguistikora egin dute jauzi.

Beraz hizkuntza komunitatearen trinkotzea gertatzen ari dela ondoriozta dezakegu. Herritarren gehiengoak osatzen duen gune sinboliko garrantzitsua du, etengabe hiztun berriez elikatzen dena hiztunen optimizazio eta haurren mundutik datorren joerari esker. Honen inguruan dabilzan talde soziolinguistikoak aldiz indarra eta hiztunak galtzen doaz, aurretik aipatutako hiztunen optimizazioaren joerari esker.

#### **4.4. Euskara Oñatin.**

Txepetxen teoriaren arabera, munduko edozein hizkuntza historiaren une zehatz batean ondoko lau kasu hauetako edozeinetan egon daiteke:

A          B          AB          0

A egoeran dauden hizkuntzak: bere garai historikoko beharretarako transmisio naturala bakarrik jasotzen dutenak.

B egoeran dauden hizkuntzak: momentu historiko zehatz batean kulturalki bakarrik transmititzen direnak.

AB egoeran dauden hizkuntzak: bere garai historikoko beharretara egokituta transmisio osoa jasotzen dutenak: naturala eta kulturala.

0 egoerako hizkuntzak: momentu historiko horretan hilik dauden hizkuntzak.

Talde teoriko hauen artean, trantsisiozko egoera ugari topa ditzakegu.

Eta orain galdera da: gaur egungo momentu historikoan, Oñatin hauetako zein egoeratan dago euskara?

Argitasun bila bi daturi erreparatuko diegu. Hizkuntz transmisioaren datuari, hau delako hizkuntzen trasmisio naturalaren giltza, A ibilbidearena alegia.

Oñatiko haurren eskolatze ereduari, transmisio kulturala eskola bidez gauzatzen delako gehienbat gaur egun,. Arlo honetan kontuan izan beharreko datuak gurasoek hiru hizkuntza ereduren artean egiten dutela aukera A B eta D eta azken hau dela hizkuntzaren transmisioa kulturala bere osotasunean ziurtatzen duena, B ereduak partzialki bakarrik ziurtatzen du eta A ereduak gaztelaren transmisio kulturala gauzatzen duen eredu da.

	euskara	Euskara eta gazt	gaztelania	Besterik
1986	70,3	4,0	24,5	1,1



1991	70,4	3,7	24,0	1,9
1996	68,7	3,9	26,1	1,3

Transmisio datuei erreparatuta 1996ko datuek esaten digute urte horretan Oñatiarren %72,6ak euskara gutxienez duela ama hizkuntza (%68,7ak euskara bakarrik eta %3,9ak euskara eta gaztelania), %26,1ak aldiz gaztelera bakarrik izan du ama hizkuntza. Gaur egun bikote euskaldunen %100ak transmititzen die euskara seme alabei, eta berdin gertatzen da bikote mixtoetan ere.

Oñatin esan daiteke transmisioa gerta daitekeen kasu guztietan gertatzen dela. Baina horrekin batera ehunekotan ikusten dugu ama hizkuntza euskara bakarrik duten Oñatiarren portzentaia etengabe behera doala, euskara eta gaztelania eta gaztelania bakarrik ama hizkuntza dutenena mantendu edo gorantza doazen bitartean.

Honen azalpena eskola bidez euskaldundu diren guraso erdaldunak dituzten haurrek ematen digute.

Ondorio bezala esan dezakegu:

- euskara posible den kasu guztietan transmititzen dela.
- Euskaldunen artean gero eta gehiago dira ama hizkuntza bezala euskararekin batera gaztelera edo gaztelera bakarrik jaso dutenak.
- Oñatin jaiotzen diren 10 haurretatik 7 dira euskara ama hizkuntza moduan jasotzen dutenak bakarrik edo gaztelarekin batera, eta 2k baino gehiagok gaztelera bakarrik jasotzen dutenak. Jakin badakigu ama hizkuntzak haurren hizkuntza gaitasun erlatiboa baldintzatzen duela eta gaitasun erlatiboak erabilera aldi berean, beraz euskaldun gehiago ditugu baina gaitasun relativo baxuago batekin.

Datu guzti hauek kontuan izanda Oñatin euskararen transmisio naturala (A) egoera batean dagoela esan dezakegu. Transmisioaren kataia ez da inongo kasutan eteten, baina ez dute herriko haur guztiek euskara jasotzen beraien gurasoengandik (hau ezinezkoa da noski) horregatik ez dago nire ustez A egoera normalizatuan, ez dutelako herriko haur guztiek modu naturalean jasotzen

Transmisio kulturala aztertzeko eskoletako matrikulazio datuen laguntza jasoko dugu. Gaur egun, transmisio kulturalaren egitekoa hezkuntza sistemari egozten bait zaio nagusiki.

Hona hemen Oñatiko haur/gazteen matrikulazio datuak hizkuntza erdua eta hezkuntza hezkuntza adinaren arabera:

HH			LH			BH			Batx					
A	B	D	A	B	D	A	B	D	A	B	D	A	B	D
-	85	214	-	183	365	-	135	319	-	-	183	178	-	63
	%28,5	%71,5		%33	%66		%30	%70			%100	%74		%26

HH: haur hezkuntza.

LH: lehen hezkuntza.

BH: bigarren hezkuntza.

Batxilergoa

Oñatin ikasketak egiten 1725 haur eta gazte dabilta 1996ko eustateko datuen arabera horietatik:

178 %10 A ereduan.  
 403 %23 B ereduan.  
 1144 %66 D ereduan.

Hainbat prozesu somatzen dira: A eredia desagertzeaz da adin talde nagusietan bakarrik mantentzen delako, ondorengo adin taldeetan desagertuz. Hau datu aipagarria da A eredia urteetan indarrean egondako aukera bakarra eta herriko heldu eta zaharrek pairatu behar izan zutena, Oñatiarrak euskal hiztun oso bilakatzea ezinezko egiten ez bazuen ere izugarriko zailtasunak jartzen sitúen eredu hau desagertzeaz dagoelako. B eredia ere %30 inguru erabiltzen da baina honek ere beheranzko joera batean, eredu honetan euskara eta gaztelera nahasten dira kultur transmisiorako hizkuntza moduan eta ez du euskararen kultur transmisioa %100ean ziurtatzen. D eredia goranzko joera etengabe, adin tarterik gazteenetan batez ere datu pozgarria da.

D eredia da euskarazko kultur transmisioa ziurtatzen duen bakarra. Beraz gaur egun hezkuntza sisteman ikasten duten 1725 haur eta gazte horien artean 1144k jasotzen dute euskarazko kultur transmisioa modu osoan, hau da % 66aren kasuan ziurtatzen da euskarazko kultur transmisioa 1996an , beste %23 baten kasuan modu partzialean ziurtatzen da.

Azken urteetako datuek, euskararen aldeko joera nabarmena erakusten dute

I	1989/90			98/99			00/01		
	A	B	D	A	B	D	A	B	D
Irakasmaila									
HH	0	19	81	0	29	71			
LH	0	28	72	0	26	64			
DBH	9	30	70	0	26	74			

**BERAZ, EUSKARAZKO KULTUR TRANSMISIOA** Oñatin %66an ziurtatzen zen 1996an. Irakaskuntza D ereduan gauzatzen ari ziren haur/gazteen kopurua hain zuzen. Beraz, kultur transmisioa ematen da, baina ez kasu guztietan, horregatik ( ) artean irudikatuko dugu Oñatin euskararen kultur transmisioa (B) egoera batean dagoela adieraziz. Transmisio hori ematen dela, gehiengoaren kasuan, joera baikorra dela, baina ez dela %100ean ziurtatzen ahaztu gabe.

-----

Ondorioak, transmisio naturala eta kulturala behin aztertu ondoren Oñatin euskarak biz i duen egoera (A) (B) egoera bezala irudikatzen dugu. Transmisio naturala Oñatiko biztanleen %83aren kasuan bermatzen delako eta transmisio kulturala %66aren kasuan modu osoan eta beste %23 batena modu partzialean %89 raino iritsiz.

## 5.-ONDORIOAK

### 5.1.Demografia.

- 1.- Oñatiko euskal hizkuntza komunitatea geografikoki euskal hizkuntza komunitatearen erdigunean edo bihotzean kokatuta dago.
- 2.- 10.000 biztanletik gora izan eta %80ko euskaldun proportzioa duen herri gutxietako bat da Oñati.
- 3.- euskaldunen ehuneko gorantza doa etengabe erritmo egonkorrean 1981etik. 1981ean %74,3 zen euskalduna. 1996an %80,4a , 15 urtetan 6 puntuko irabazia ezagutu du.
- 4.- Erdaldunen proportzioak neurri berean egin du behera. 1981ean %19 izatetik 1996an %13,7 izatera pasa da.
- 5.- Adin tarteen arabera ezagutza aztertuta 91an haurrak ziren euskaldun portzentaia altuena zutenak %88arekin. Ondoren zaharrak datoz %86arekin, atzetik gazteak %84arekin eta azkenik helduak %71ekin. Adin tarte gazteenak euskaldun proportzio altuena izateak euskara hitzunak irabazten ari dela adierazten du. Kasurik okerrean euskaldunen portzentaia ez da %70etik jaisten (helduak), euskarak duen indar demografikoaren adierazle garbia.
- 6.- Erabilera datuek erakusten dute erabilera 2000. urtean 1993an bezala mantentzen dela, hainbat gora behera ezagutu ostean. Hasiera batean datu kezagarria da erabilera bederatzi urte lehenagoko mailan mantentzea 1993tik beheranzko joeran gainera, nahiz eta euskara gaztelera baino gehiago entzuten den. Kaleko elkarrizketen %56 euskaraz eta %43a gaztelera.
- 7.- Erabilera adin tarteka erreparatuta bi joera nabarmen somatzen dira 1991 eta 2000 urteen artean:
  - 7.1. haur eta gazteen adin tarteak dira euskara gehien erabiltzen dutenak, alde nabarmenez gainera %85 eta %75eko proportzioan eta 1991n baino gehiago. Erabilera proportzio altu hau hiru faktorek azaltzen dute: haur eta gazteen artean euskaldunen dentsitate altuak, euskaraz hitzun osoak izateak eta talde trinkoa osatzen dutela.
  - 7.2. heldu eta zaharren adin tartean alderantziz erabilera %36,5 eta %52an dago. Erabilera 1991n baino eskasagoa da gainera, orduan %42 eta %69an zegoelako. Zaharren adin tartean gertatzen denak badu azalpenik hiltzen diren zaharrak euskaldunak direlako normalean eta adin tarte horretan sartzen doazen helduak proportzio txikiagoan dira euskaldun, honek erabilera duen eraginarekin. Helduen adin

taldean gertatzen denak ordea azalpen zailagoa du. Erabilera tasa baxuena izatea euskaldun proportzio txikiena duen adin tartea eta hiztun gehienak hiztun oso ez izateak azaldu dezake baina 1991tik erabilera eskaxagoa izateak ez du azalpen logikorik helduen adin tartera gazte izatetik euskaraz hiztun osoak direnak sartu direlako. 1991tik 6 puntu gutxiago erabiltzen dute euskara kalean.

8.- Ezagutza eta erabilera adin tarteka aztertuta ikusten da haur/gazteetan bilakaera bat eta heldu/zaharregan beste bat.

haur/gazteetan ezagutza eta erabilera arteko tarte txikia dago. Arrazoiak: euskaldun portzentaia altua, hiztun osoak izatea euskaraz eta harreman sare trinkoa osatzea. Heldu zaharretan tartea nabarmena da, hiztun osoa ez izateak sortzen dituen arazoak medio.

9.- Ama hizkuntza bezala euskara jasotzen duten haurren proportzioa altua da, %82a. Proportzioa mantendu egiten da baina gero eta gehiago dira euskararekin batera gaztelera ere jasotzen dutenak lehen hizkuntza gisa.

10.- Hiztun tipologiaren bilakaera aztertuta euskaldun zaharrak dira nabarmen nagusi herrian. Euskaldun berrien proportzioa ere indartzen doa urteekin. Hiztunen irabazigalera aldetik Oñatin euskal hiztunak irabazten ari direla erakusten dute datuek: euskaldunak 1991n %78,9 izatetik %80,3a izatera pasa ziren 1996an. Erdaldun zaharrak %14,8 izatetik %13,6 izatera pasa dira. Euskaldun berriak %8,8a eta partzialki euskaldun berriak %5a dira euskaraz irabazitako hiztunak, %13,8a osatzen zuten 96an, 91 baino 2,7 puntu gehiago. Euskara hiztunak irabazten ari denaren seinale, kontutan hartuta galerak osotara partzialki erdaldunduak (%0,9) eta guztiz erdaldunduak (%0,2) biztanleen %1,1a osatzen dute guztira. Beraz hiztunen irabazia %12,7koa izan da.

## **5.2. Hizkuntza komunitatearen ezaugarriak.**

11.- Motibazioa/ezagutza/erabilera.

1996an Ezagutza %80an zegoen eta erabilera %56an. 24 puntuko tartea.

1986an ezagutza %76an zegoen eta erabilera %47,9an. 28 puntuko tartea.

Joera argia da: ezagutzaren ontzia %4 bete da eta erabilerarena %8 hamar urtetan. Aldi berean ezagutza eta erabileraren arteko tartea 28tik 24ra murriztu da. Urteekin joera positiboa dela ikusi dugu bai ezagutza bai erabileraren ontzien joera aldetik baita ontzien arteko tartea txikitzen doalako.

Gazteen datua gehituta ikusten dugu ezagutza eta erabilera ontziak ontzi orokorra baino beteago daudela (ezagutza 4 puntu eta erabilera 19 puntu beteago). Aldi berean ezagutza erabilera arteko tartea %9koa da soilik.

Beraz aderazle guzti hauen arabera bai ezagutza bai erabilera aldetik berreskurapen prozesua bizi da Oñatin, bai denboran zehar bai adin tarteen joera aztertuta.

Beraz, argi dago motibazioa/ezagutza/erabilera aldetik berreskurapen prozesu bat gertatzen ari dela Oñatin. Hala ere ondorioetako 7. puntuaren ezagutza eta erabilera artean bi joera desberdin somatzen direla esan dugu bat haur eta gazteen aldetik eta bestea heldu eta zahar adinetan (berrirakurri 7. puntua).

Desberdintasun honen azalpena honakoa litzateke Txepetxen ikuspegitik:

- Haur eta gazteen kasuan A ibilbidea (erabilera/ezagutza/ motibazioa) naturaltasunez osatzen dute beti ere ontzi batetik bestera pasatzeko gaintitu beharreko nahikotasun maila gaintituta, (baldintza soziolinguistikoek posible egiten dutelako). Adin batetik aurrera hizkuntza modu kulturean bereganatzen hasten dira eta B ibilbidea ere euskaraz egiten dute. Honela zirkuito osoa euskaraz gauzatu eta hiztun oso bihurtzen dira euskaraz. Euskara erabiltzeko motibazio naturala dute eta gaitasun aldetik ez dute euskaraz aritzeko zailtasun berezirik topatzen, hiztun osoak dira euskaraz aritzeko eta erabilera modu naturalean gauzatzen da. Honek azaltzen du gaitasun eta erabilera arteko tarte txikia, gero eta txikiagoa dena gainera.

- Heldu eta zaharren kasuan ordea askok eta askok A ibilbidea modu naturalean gauzatu zuten, erabilera nahikoa jasota, nahikotasun maila igaro eta gaitasun egokia lortu zuten, gaitasunean nahikotasun maila igarota euskararekiko motibazioaren ontzia betez. B ibilbidea gauzatzen hastean ordea, ibilbide hori euskara ez den beste hizkuntza batean (gaztelera) gauzatzen zuten halabeharrez, beste aukerarik ez zegoen eta. Ibilbide kulturala gaztelera gauzatzean hizkuntzarekiko motibazioa beste hizkuntza horrek bereganatzen hasten da. Horrez gain, prestigiodun ibilbidea ibilbide kulturala da eta hori gaztelera egiteak prestigiodun hizkuntza gaztelera denaren balorea zabaldu eta gaztelera erkiko ontzi motibazionala indartuz joan zen, euskararena usten zen bitartean, honek erabilera duen eraginarekin. Txepetxek *tipos descompensados* deitzen dituenak izango lirarteke: “*Son los tipos que tienen fijado un aprendizaje B en la lengua extraterritorial que rompe su aprendizaje cultural en la lengua nativa, o bien los tipos que solo conocen completamente la lengua extraterritorial tiene un conocimiento incompleto de la lengua nativa*”.

## 12.- Hiztun tipologia.

Datu garrantzitsua: Oñatiarren erdia baino gehiago hiztun osoa da euskaraz. Kopuru aldetik talde nagusia da %53,9arekin, 5500 hiztun baino gehiago. Hiztun osoak ez diren artean A hiztunak %25eko proportzioan eta B hiztunak %9an daude. Beraz kopuru aldetik hizkuntza komunitatearen zat garrantzitsuenak diren hiztunak, hau da, hiztun osoak (AB/BA) herritarren gehiengo osatzen dute. Ondoren A taldea dator biztanleen laurdenarekin hau delarik gune sinbolikotik kanpo garrantzi gehien duen taldea.

Hiztun taldeek kopuru aldetik ezagututako aldaketak aztertuta ikusten dugu hiztunak irabazi dituen bakarra 1986ko datuekin gonbaratuta AB/BA taldea dela, hizkuntza komunitateari ekarpenik handiena egiten dion taldea. Gainontzeko taldeek hiztunak galtzen dituzte. Beraz kopuru aldetik euskararentzat garrantzitsuena den hiztun taldea gehiengoak osatzeaz gain taldea etengabe zabaltzen ari dela ikusten dugu, bai gertukoena den taldearen (A) optimizazioaren bitartez bai haur jaio berrien sozializazio prozesu arrakastatsuen bitartez.

## 13.- Talde soziolinguistikoak.

Herriko euskal hiztunek komunitatean duten egiturari buruz esan dezakegu hizkuntza komunitatearen gune sinbolikoa, euskaraz hiztun osoak diren taldea (AB/BA), herriko hiztunen gehiengoak osatzen duela alde batetik eta horrekin batera etengabeko hedapen prozesua bizitzen ari dela. Gune sinbolikoa herritarren erdiak baino gehiagok osatzeak gune sinboliko horrek indarra duela adierazten du, osasuntsu dagoela. Oñatiko euskal hizkuntza komunitateak gune sinboliko zabala du. Gune honen inguruan A hiztunen

taldeak biztanleen %25arekin babes sendoa eskaintzen dio, nahiz eta talde hau txikitzen ari den. Hala ere gune sinbolikoaren irabazia A taldearen galera baino 3,6 puntu zabalagoa da.

Talde soziolinguistikoen optimizazioa etengabea da, horrenbestez.

Hizkuntza komunitatearen egituraren egoera osasuntsuaren arazoak:

- talde soziolinguistikoek banaketa egokia dute.
- gune sinbolikoa etengabeko hedapena ezagutzen ari da.
- gainontzeko talde soziolinguistikoen optimizazioa gertatzen ari da.

Euskal hizkuntza komunitateak egitura gero eta sendoagoa du Oñatin.

*“Los grupos AB y BA constituyen las capas mas interiores: el espacio simbólico de la lengua. De entre ellas el más nuclear es AB: si este grupo no vive y se expande en el corazón de la comunidad lingüística puede colapsar el propio idioma.”* Txepetx.

Momentuz Oñati arrisku honetatik kanpo dago, ikusi ahal izan dugun bezala.

*“ Una comunidad lingüística esta articulada no solamente cuando se auto reproduce y las ganancias compensan a las perdidas, sino también cuando simultáneamente los grupos están dispuestos tal y como aparecen en el diagrama. En una comunidad articulada los grupos plenos (AB/BA) crecen de dentro hacia fuera, cada grupo ocupa su lugar y lo asume”.* Txepetx.

Baldintza hau ere betezen da Oñatiko kasuan, horregatik Oñatiko euskal hizkuntza komunitatea artikulatua dagoela esan dezakegu.

*“Lo que articula una comunidad linguística es su propoio compactamiento”.* Txepetx.

Kasu honetan ere Oñatiko euskal hizkuntza komunitatea trinkotua dagoela esan dezakegu, gero eta gehiago gainera.

14.- Euskara oñatin.

Oñatin euskarak bizi duen egoera (A) (B) bezala irudikatu dut. Transmisio naturala herriko biztanleen %83aren kasuan bermatzen da. Transmisio kulturala %66aren kasuan modu osoan eta %23arenean partzialki, %89raino iritsiz.

Amaitzeko esan dezakegu datu gehienek esperantzarako bidea ematen dutela, bai datuek bere horretan duten indarragatik, baita denbora zehar erakusten duten garapena aztertuta ateratzen ditugun ondorioak ikusita, baina beti ere erne eta lokartu gabe jokatu beharko dugula jakinda.

## 6.-BIBLIOGRAFIA

ECO, U. (2001) *Como se hace una tesis*. Bartzelona: Gedisa.

ERIZE, X. (1997) *Nafarroako Euskararen historia soziolinguistikoa 1863-1936*.

EUSKO JAURLARITZA. (1999) *Euskararen jarraipena II*.

----- (1989) *Soziolinguistikazko mapa*.

SÁNCHEZ CARRIÓN,J.M. (1991) *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del euskera y teoría social de las lenguas*. Donosita.

----- (1999) *Márgenes de encuentro Bilbao y el euskara. Aplicación sociolingüística de la territorialidad*. Bilbao.

-----“La teoría social de las lenguas y su aplicación a la recuperación del euskara”.